

# TXORI BATEN PORTRETA EGITEKO

Testua: JACQUES PRÉVERT

Irudiak: MORDICAI GERSTEIN

Itzulpena: JOSE ANGEL IRIGARAY

Kartoi gogorrean egina. 21,5 x 21,5 cm. 48 or. 14 €.

**Txori baten portreta egiteko** (euskara)

ISBN 978-84-9172-031-7. Gaur egungo klasikoak.

**Para hacer el retrato de un pájaro** (gaztelani)

ISBN 978-84-8464-377-7. Obras de autor. Lectores autónomos.

**Para facer o retrato dun paxaro** (galegoa)

ISBN 978-84-15250-00-5. MareMar.

**Per fer el retrat d'un ocell** (katalana)

ISBN 978-84-16804-43-6. Obres d'autor. Lectura autònoma.

**Para fazer o retrato de um pássaro** (portuges)

ISBN 978-989-8205-62-9. Obras de autor. Leitura autónoma.


Margotu lehenik kaiola bat atea zabalik utziz.

Gero margotu zerbait polit, xume, zerbait eder,  
zerbait erabilgarri txoriarentzat.

Jarraian kokatu oihala zuhaitz baten kontra parke batean,  
edo baso batean.

Ezkutatu zuhaitzaren atzean, hitzik esan gabe, mugitu gabe...

Arte eta sormenari buruzko alegia polit honetan biltzen dira Jacques Préverten poema ederrenetarik bat, 1943an idatzia, eta berau kolorez hornitzen duen Mordicai Gersteinen dohaina. Aipagarria da zeinen modu originalean iragaten den hiru izariko mundutik bidimentsiokora. Orobat nola islatzen dituen denboraren neurria, egonariaren balioa eta izadia atzemateko modua. Funtsean, efimerotasunari buruzko gogoeta filosofikoa da: saiatzen gara atzematen dakuskigun eta desiratzen ditugun une eta irudipenak, lipar batez baizik ezin ditugularik atxiki. Gainditu beharrekoa, beraz, gurea ez dena geureganatzeko irrika hori, gure behakoa irekia izan dadin sentipen berrien aurrean.



■ **Gala:** efimeroari buruzko kontakizun surrealista.

■ **Adin gomendatua:** 7 urtetik aurrera.

■ **Nabarmenezko modukoak:** hiru izariko mundutik bidimentsiorako trantsizioa.

## Jacques Prévert

(Neuilly-sur-Seine, 1900 - Paris, 1977)

Poera, antzerkigile eta zinema-gidoilari. 1920ko hamarkadaz geroztik surrealismoko partaide izan zen Parisen, Raymond Queneau eta Marcel Duhamelekin batera. 'Hilotz fina' bezalako ariketa artistikoak ondu izana egozten zaio. Ondoko urteetan "Octobre" antzerki taldean jardun zuen. Zenbait gidoi idatzi zituen Marcel Carné zinemagilearentzat, halanola "Les enfants du paradis" (1945). Liburuaren artean nabarmenezko modukoa da "Paroles" (1946); bertako zenbait poema musikatu-eta kantatuak izan dira, interpretearen artean Joan Baez bat. Poemetan 2. mundu-gerla ondoko Pariseko bizitzaz dihardu. Hitzekin eta lengoaiarekin jolasten du, neologismoak darabiltza, esanahi bikoitzak eta ustekabeko metaforak; denetan, umore-zentzu berezia.

## Mordicai Gerstein

(Los Ángeles, 1935)

Margolari eta idazle, zinemagile, ilustratzaile eta haurrentzako liburugile. Arte Chouinard Institutuan ikasi zuen eta, ondotik, 25 bat urtez, New Yorken jardun zuen telebistarako marrazki bizidun filmak egiten. 1980an bere liburuak idatzen eta ilustratzen hasi zen. Caldecott Domina eta Boston Globe-Hornbook saria jaso zituen 2004. urtean; besteak beste, zinema arloan ere zenbait sari irabazitakoa baita.

www. **Kalandraka** .com

comunicacion@kalandraka.com

www. **Pamiela** .com  
etxea  
soltxate@pamiela.com